

HOMILIAK

Atera berri dugu, erlijio alorrean dihardugunontzat liburu interesgarri izan daitekeen hau. Aintzina, euskaraz, erlijioari buruzko liburu ugari argitaratzen baziren ere, une honetan nahiko urri ageri zaigu esparru hau. Merkatuko salmenta legeak nagusitu zaizkigu eta inork ez du honelako liburuetan ordurik eta dirurik erre nahi, nonbait.

Oraingo honetan, alabaina, Aita Beobidek urteetako lan isilean egin eta ordu luzeetan zehar egositako emaitza oparoa eskaini nahi izan digu. Baliteke, norbait, eskaintzen digun homiliaren bateren batekin guztiz ados ez etortzea, baina, orokorrean, eskumakil lagungarri ederra dugula eta nauzue.

Azalpenetara jo aurretik jakingarri gertatuko zaigu, liburua-
ren nondik norakoen berri nagusiak, laburkiro bada ere, jasoteko, berak auzkezpenean dioskuna gogora ekartzea:

«Adiskide:

Eskaintzen jatzun homilia txorta au zeuretzat da.

Euskal Elizaren utsune bat betetzera dator.

Zoritxarrez, euskaldunok gitxi idatzi dogu onetaz. Aberastu bear genduken alderdi bat dala deritxat. Sarritan aurkitzen gara onetan diardugunok onako zerbitzu baten bearrean.

Onegaitik edo aregaitik bidea urratu eziñik gabiltzanean, ona izaten da lagun bat alboan, nahiz eta lagun au apala izan.

Aita Beobide

Igande eta Jaietako

Homiliak



Jainkoaren Billa

Asmo onegaz argitaratzen dogu homilia liburu au.

Batez ere, Itzaren zerbitzariak izan ditugu gogoan: abade, katekista, ezitzaile, irakasle, batzarkide, eta abar. Zelanbaiten ebanjelizatze lanetan aurrelari dabiltzanak.

Euskara erreza daroa liburuak, gure erri zaarraren agotik artua.

Azalpenak ebanjelioari oso lotuak jarri doguz, Jesus dalako gure Maixu bakarra. Bere inguru ta ikus-mugan girotu ditugu gogaeta guztiak. Jesusen ikutua ta beroa jarri orri bakoitzean».

Nik, inprimategiko probak zuzentzea zela eta lana hurbiletik ezagutzeko aukera izan dudanez lan interesgarria dela ikusi dut. Izan ere esparru oso zabala ageri zaigu bertan jorratuta.

Homilia sorta bat dugu eta ez sermoi sorta. Jaietako Euskaristietako Hitzaren ospakizunetan gogoratzen dugun kristau mezu zabala jasoten du. Aukera ederra ematen digu, bai, kristau irakatsi nagusiak sakontzeko zein gogoetak egiteko.

Homilia bakoitzak aurkibidean oso erraz aurkitu daitekeen izenburua dauka: *ilunean argia, gure bide-lagun, Jesusen adiskide, maitasun iturri, zoriona ez da erosten, ez izan gogorak, Jainkoa eta gizona maitatzen, Jainko egarriz, beartsuak aurretik, esker onekoak, errukiaren poza, fedea argitu, pobreen ogia, gidaria non?, bekaizkeria, Aitaren besartean, Aitaren etxera, langille billa, diru-zorroa zaintzen, galdu ondasunak, aukeratzen ikasi, aberatsa eta txiroa, eta gero zer?, apalen sarria...* Horrela 186 izenburu ezberdin.

Jainkoaren Hitza argitzeko edo Hitzaren liturgiak egiteko erabiltzeaz gainera, beste hainbat ihardunetarako ere lagungarri gerta daiteke: hala nola, norberak gogoetak egiteko, Sendotza sakramenturako gaiak argitzeko, katekesian erabiltzen diren zenbait gairi argitasuna emateko, gogo-ihardunak egiteko zein emateko, biblia aztertzen diharduten hainbeste kristau taldeen lanerako...

Gure beharrianen arabera aurkibidera begiratu eta komeni zaigun gaia aukeratuz joka ahal izango dugu. Sakondu edo eta

aztertu nahi dugun kristau gaiari buruz hainbat argitasun emango digu euskara errazean.

Eliz zikloen arabera egituratuta dago. Homilia bakoitzaren hasieran, irakurgaiak erraz bilatu ahal izateko, jaiegun bakoitzeko Bibliako hiru testuen aipamenak jasoten dira, irakurgai bakoitzaren mezu nagusia biltzen duen lerro bat edo beste eskainiz.

Liburua bizkaieraz idatzita baldin badago ere, oso euskara erraza eta herrikoa erabiltzen duenez, edonork erraz ulertzeko eran egina dugu. Homilia bakoitza orrialde bitan biltzen du. Mezua esaldi labur eta ulergarrietan eskaintzen digu. Oso nekez aurkituko da hiru lerrotik gorako esaldi luzerik.

Koloretako azal biguna duela gogor jositako liburu hau jarraiko liburu denda hauetan aurki dezakezu: IDATZ liburudenda, Urdaneta, 10 (Donostia); BAROJA liburudenda, Txurruka, 13 (Donostia); Jakinbide, Kolon de Larreategi (Bilbo) eta, baita ere, URRETXINDORRA (Bilbo), BILINTX (Donostia eta Tolosa) XALBADOR (Iruñea), ZABAL (Baiona), ETCHEPARE (Bergara), AXULAR (Gasteiz) liburudendatan. Norbaitek zuzenean nahi izanez gero, Aita Beobideri (Karmeloko parrokia; Karmelo, 10; 48004-Bilbo, Tfm.4124343) eska diezaioke, postaordainez bidaltzeko eskatuz.

Prezioa ere ez du hainbestekoa 396 orrialdetako liburu erabilgarri honek: 1.650 pezetatakoa BEZ barru duela. Horretan, inprimategiko gastuei aurre egiteko beharrezkoak izan diren kostuak baino ez dira barne sartu, prestatzen eginiko ordu luzeak euskararen eta Ebanjelioaren onerako eskaini direlarik. Aldizkari honen arpededun zaretenok, dendei egiten zaien beherapena egingo zaizuela, 1350. pezetatan jaso dezakezue etxean postaordainez.

Besterik ez.

Patxi Uribarren